

Lor dezagun hobekuntza pertsona guztientzat



Larraitz

2008an, krisiaren eraginez guztia galdu zuen. Hamar urteren buruan bere negozio txikia martxan jarri du.

Ane

2008an, krisiaren eraginez guztia galdu zuen. Hamar urte buruan, berdin-berdin jarraitzen du.

 **Caritas**
Gipuzkoa

Lor dezagun hobekuntza pertsona guztientzat

Horixe da caritas gipuzkoaren aurtengo leloa bere kanpainan eta 2017ko bere datuen memorian.

Datu makroekonomikoek adierazten digute susperraldi ekonomiko bat dagoela, eta azpimarratu nahi dugu garrantzitsua dela hobekuntza sozial hori pertsona guztiengana iristea.

Egin dezagun ahalegin bat hobekuntza horiek bereziki oraindik beren bizi proiektua osatu gabe duten gazteengana, eta beren kargura adingabeak dituzten eta prestakuntza jasotzeko, lan egiteko eta zaintza-lanak kontziliatzeko zailtasunak dituzten emakumeengana irits daitezten. Eta langabezia dembora asko daramaten pertsonak, krisi ekonomikoaren eraginez lan merkatutik kanpo geratu zirenak, eta egun ere at jarraitzen dutenak.

Horren alde egiten dugu, ekonomia solidarioaren alde, zeinak gizarte-eragile, enpresa, administrazio publiko, gizarte-erakunde eta gizarte osoa egiten baitu pertsona guztiengako lan-proiektu inklusiboak bilatzearen erantzule.

Proposamen hau egiten dugu laguntzaile garen heinean; izan ere, kalteberatasun-egoeran eta gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonak laguntzen diegu parrokietako Caritas-etan eta gure programetan. Gure lana da zailtasunak dituzten pertsonak hartzea eta haien entzun eta laguntzea, bizi-proiektu inklusibo bat eraki ahal izan dezaten.



 **Caritas**
Gipuzkoa

